



LEGAZPI KLIMA 2030

IRAKURKETA ERRAZA



LEGAZPIKO
UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAIA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Ozeo
Hidrokarbonatoen Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



udalsarea21

jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

Aurkibidea



1	Zer da Legazpi Klima 2030?	03
2	Zer lortu nahi dugu?	04
3	Nork landu du Legazpi Klima 2030?	05
4	Nola sortu dugu Legazpi Klima 2030?	06
5	Nolako Legazpi nahi dugu 2030. urtean?	07
6	2017-2024 Plana	08
	→ Herriko eremua hobetu	10
	→ Energia gutxiago kontsumitu	11
	→ Baliabide naturalak zaindu	12
	→ Ekonomia zaindu	13
	→ Bizikidetzeta eta parte hartzea hobetu	14
	→ Udalarekin harremana hobetu eta berritu	15

1

Zer da LEGAZPI KLIMA 2030?



LEGAZPI KLIMA 2030 Legazpik hartutako konpromisoa da **garapen iraunkor**rean aurrera egiteko eta **klima-aldaketari** aurre egiteko.

GARAPEN IRAUNKORRA: Pertsona guztien bizi-kalitatea bermatzea da. Hau lortzeko pobrezia desagertu behar da eta planeta zaindu behar dugu.



KLIMA ALDAKETA: Gizakien jokabideak lurraren tenperatura igotzen du. Aldaketa honen ondorio dira: bero boladak, edateko ur falta, uholdeak ...



2

Zer lortu nahi dugu?



→ Natura errespetatzea.



→ Pertsonen eskubideak errespetatzea.



→ Herria hobetzeko, pertsonen parte-hartzea bultzatzea.




→ Udalak urtero plan honetarako dirua bideratzea.

→ Klima-aldaketari aurre egitea.

→ Legazpi hobetu.

3

Nork landu du LEGAZPI KLIMA 2030?



Haizea Ikerketa eta Factor CO₂ izan dira udalaren aholkulariak.

4

Nola sortu dugu LEGAZPI KLIMA 2030?



Honakoak aztertu ditugu:

→ Legazpiren egoera esparru hauetan: ekonomikoa, soziala, ingurumena eta klima-aldaketa.

→ Nolako Legazpi nahi dugun 2030. urtean.

→ Zer egingo dugun hori lortzeko.

5

Nolako Legazpi nahi dugu 2030. urtean?



- Legazpin, pertsonen **bizi-kalitatea** izango da garrantzitsuena.
- Bidezko **gizarte anitz batean** biziko gara.
- Natura babestuko dugu.
- Lana izango dugu.
- Pertsona guztiak parte hartuko dugu erabakietan, modu demokratikoan.

BIZI-KALITATEA: Pertsonen ongizate eta gogobetetze maila da, esaterako: zoriontsua izan, osasuna izan edo aisialdiaz gozatu.

GIZARTE ANITZA: Pertsona ezberdinez osatuta dagoen gizartea, baina denak berdintasunez tratatzen dituena.



6

2017-2024 Plana



→ Legazpi nolakoa nahi dugun izatea irudikatu dugu eta Plan bat egin dugu hori lortzeko.

→ Plan honek 72 ekintza ditu eta Legazpiko Udalak datozen 8 urtetan zehar jarriko ditu martxan.

→ Udalak eta Agenda 21eko Foroak aztertuko dute urtero plana nola betetzen den.

6

Plan honek lortu nahi du:



→ Herriko eremua hobetzea.



→ Energia gutxiago kontsumitzea.



→ Baliabide naturalak zaintzea.



→ Ekonomia zaintzea.



→ Bizikidetzeta eta parte hartzea hobetzea.



→ Udalarekin harremana hobetzea eta berritzea.



Herriko eremua hobetu




HELBURU HAU LORTZEKO EKINTZAK:

- Etxeak, kaleak eta plazak egokitu klima aldaketari aurre egiteko.
- Uholde, bero bolada eta lurren mugimenduen arrisku gehien dituzten auzoak berritu.
- Alde batera utzi diren zonaldeak berreskuratu.
- **Bioaniztasuna** zaindu.

BIOANIZTASUNA: Animalia, landare eta horiek bizi diren lekuen aberastasuna da. Bioaniztasuna zaintzea oso garrantzitsua da pertsonen ongizaterako.






Energia gutxiago kontsumitu

HELBURU HAU LORTZEKO EKINTZAK:

→ Legazpiko eraikinetan **energia berriztagarriak** instalatu.

→ Kontsumo txikiko (LED) bonbillak instalatu.

 → Oinez, bizikikletaz, autobusez edo trenez mugitu.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK: Eguzkitik, haizetik, uratik, lurretik...lortzen den energia da, bukaezina da eta ez du kutsatzen.





Baliabide naturalak zaindu

HELBURU HAU LORTZEKO EKINTZAK:



→ Etxean hondakinak sailkatu gero birziklatu ahal izateko.



→ Ura aurreztu.

→ Gauzen berrerabilpena erraztu.

→ Janariaren soberakinekin **konposta** egin auzoan.

KONPOSTA:

Zenbait auzotan, etxeko janari soberakinak botatzeko egurrezko etxolak daude. Mikroorganismoek konpost bilakatzen dute. Konposta abono naturala da.





Ekonomia zaindu

HELBURU HAU LORTZEKO EKINTZAK:



→ Legazpiko dendak laguntzeko Plana (PERCO).



→ Legazpiko enpresak lagundu.



→ Klima aldaketak abelzaintzan eta nekazaritzan duen eragina aztertu.



Bizikideta eta parte hartzea hobetu



HELBURU HAU LORTZEKO EKINTZAK:



→ Euskararen erabileraren alde egin.



→ Elkarateak eta kultura lagundu.



→ Emakumeekiko eta gizonekiko errespetu maila berdina lortu.



→ Herritarren parte hartzea sustatu.



Udalarekin harremana hobetu eta berritu



HELBURU HAU LORTZEKO EKINTZAK:

→ Udaleko webgunean izapideak modu errazean egiteko gunea jarri.

→ Udalak zerbitzu hobeak eskainiko ditu behar duten pertsonentzat.

LEGAZPI KLIMA 2030

Laguntza teknikoa:
Haizea Ikerketa y Factor CO₂

Diseinua eta maketazioa:
Horregatik komunikazioa



LEGAZPIKO
UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAIA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Oinarri
Hidroikologiko Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



udalsarea21

jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea
red vasca de municipios hacia la sostenibilidad

www.legazpi.eus

Euskal Herria plaza 1 - 20230 | 943 73 70 30 | legazpi@legazpi.eus



LEGAZPI
KLIMA
2030

2017ko Abendua